# BALIO PROPOSAMENA



Gure proiektua, GKE (Gobernuz Kanpoko Erakundea) izaera duen hortz klinika irekitzean datza, Euskal Herria mailan, zehazki Gasteizen. Hortz klinika honen helburua, batez ere, errekurtsorik gabeko pertsonei zuzenduta dagoena. Bertan hainbat tratamendu egingo dira, aurrerago azalduko direnak. Honen helburua, osasun pribatura heldu ezin daitezkeen pertsonen aho osasuna hobetzea da, bizi-kalitatea hobetzeko.

Guri, beste proiektuengatik hainbat ezaugarrik bereizten gaituzte: berritasuna, prestazioa eta prezioa, pertsonalizazioa, eskuragarritasuna eta erabilerraztasuna. Gu saiatu behar gara, pazienteen bizi-kalitatea hobetzen tratu espezializatu bat eskainiz. Gainera, gure profesionaltasuna oso garrantzitsua da pazienteak eroso sentiarazteko kabinete barruan.
Izan ere, gure bezalako proiekturik ez dago, nahiz eta beste klinika antzeko batzuk egon. Proiektua kudeatzeko, diru-iturria udaletxean eta beste erakunde publikoan oinarritzen da eta trukean ez dugu dirurik eskatuko pazienteei. Beraz, zerbitzua dohainekoa izango da eta paziente bakoitzak banakako atentzioa jasoko du bere egoerari egokituta.
Azkenik, klinikaren kokapena arrakastaren gakoa da: gure klinika, Alde Zaharrean kokatuta egongo da, beraz, gutxi gora behera, erdigunean egongo gara eta guztiz eskuragarri Gasteizko populazio guztirako.



Horretaz gain, informazioa kanpaina batzuk landuko ditugu, hainbat erakunde desberdinetan (heziketa zentroak, gizarte etxeak…) ditugu errekurtso urriko hiritarren artean kontzientzia sortzeko eta gazteetatik aho eta hortzen higiene ohiturak behar duen garrantzia emateko.